



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko ekainaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko ekainaren 9an, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : JORAJURIA Ramuntxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko ekainaren 2a

Afitxatze eguna : 2023ko ekainaren 2a

3. ERABAKIA: BEHIN BEHINEKO ENPLEGU BATEN SORTZEA

(4.2.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio, gazte boluntario batek zerbitzu herritarra egin zuela Ortzaizeko eskola publikoan, haur eta familiak euskal kulturara hurbiltzeko xedea zuten proiektuetan laguntzeko, 2022ko irailaren 1etik 2023ko maiatzaren 31ra.

Auzapezak zehaztu du zerbitzu herritarrak gehienez 9 hilabete iraun dezakeela, eta ondorioz eginkizun horren segitu ahal izateko denbora ez osoko behin behineko animatzaile laguntzaile postu baten sortzea proposatu du.

Enplegua 2023ko ekainaren 10etik uztailaren 9ra arte sortuko litzateke.

Asteko lanaldia 27 orenekoa litzateke.

Enplegua C hierarkia mailan kokatzen da.

Enplegu horren betetzeko, Frantziako Funtzio Publikoaren Kode Orokorreko L.332-23 1° artikulua xedapenak beteko dira, zeinek baimentzen baitute kontratupekoak kontratatzea behin behineko jardura emendatzei aurre egiteko, 18 hilabeteko garai batean gehienez eta 12 hilabeteko denbora meta daitekeelarik.

Enpleguari 401eko indize gordina aplikatu daki.

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta eztabaidaturik,

Herri Biltzarrak:

ERABAKI DU - 2023ko ekainaren 10etik goiti, lurralde animazio laguntzaile lanpostu behin behineko eta denbora partzialeko baten sortzea, batez beste astean 27 orenekoa,

- enplegu horrek 401ko indize gordinari dagokion saria izanen duela.

BAIMENA EMAN DIO Auzapezari eranskinean den lan kontratua izenpetzeko,

ONARTU DITU Auzapezaren proposamen guztiak,

ZEHAZTU DU kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko ekainaren 9an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/06/16an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/06/16an.